

MUROS

SINOPSISIA

Berlineko harresia jaustean Historiaren amaiera aldarrikatu zen, bereizketa harresiak iraganaren zati bihurturik artxibatu genituen. Errealitatea kontrakoa da, ordea. Gizateriaren historian ez da sekula gaur egun bezain bat harresi eraiki. Ez da inoiz orain bezain bat hesi, burdin-sare, txarrantxa, lubaki eta harresi egon. Milioka kilometro dira planetaren luze-zabalean. Film honek harresi arras ezberdin horien alde bietan bizi diren pertsonen zinezko istorioak kontatzen ditu. Hego-Afrika eta Zinbaue bereizten dituen harresian, Estatu Batuak eta Mexiko banatzen dituen mugatzearen eta Espainia eta Marokoren arteko Melillako hesian jarri dugu begia.

Kontakizunaren planteamendu bisuala harresiaren kontzeptuan zentratzen da, analisia geopolitikoetan zein egoeraren balorazio moral eta estrategikoetan sartu gabe. Harresiaren presentzian datza auzia, harresiaren alde bietan bizi den jendearengan. Pertsona horietako batzuen benetako eguneroko istorioak aitzaki, ur sakonagoetara garamatzate harresiek. Zinezko pertsonen hurbileko erretratu biziak, euren bizitza intimoetan eginiko sartu-irtenek, argi frogatzen digute, harresiaren alde bietan, denek ditugula antzeko ilusio, beldur, pentsamendu eta emozioak.

Harresi bakoitzak azal-mamitzen duen dramak – drama horiek kontaktua izatea eskatzen dute- mugarik gabeko emozio bat transmititzeko balio digu. Harresiek ez bezala, sentimenduek denboraz beste egiten baitute. Izan ere, hesi bakoitzaren simetria inozoa dugu ispilu, guztiok enbor bereko ezpalak gairela deskubritzeko bidean.

Pablo Iraburu eta Migueltxo Molina zuzendarien adierazpenak.

Hogei urtetik gora daramatzagu dokumentalak zuzendu eta ekoizten. Planetaren txoko ezberdin anitzetara eraman gaitu horrek, eta bidean, film honetan transmititu nahi duguna deskubritu dugu: planetako pertsona guztiak dauzkagun ageriko ezberdintasunetatik haratago, muinean ez gairela ezberdinak. Osotasun beraren zati gara. Antzeko amets, beldur eta ilusioak ditugu.

Munduak ezagutzea nahi dugun zerbait deskubritu dugu, halaber: gizateriaren historian ez da sekula gaur egun bezain bat harresi eraiki. Zenbat hesi, txarrantxa eta mugatze. Oso motibo ezberdinengatik, gizakiok geure buruari beti dramatikoak suertatzen diren bereizketak inposatzen dizkiogun garai historiko betean gaude.

Pablo Iraburu

Pablo Iraburu Arena Comunicacion Audiovisual –en sortzaile eta burua da. Hogei urtetik gora daramatza dokumentalak ekoizten. Guatemala, Nikaragua, Ekuador, Peru, Brasil, EEBB, Paraguai, Maroko, Txad, Madagaskar, Malawi, Bolikosta, India, Tailandia, Txina eta Europar Batasunaren luze-zabalean errodatzeko aukera eman dio horrek. Ekoizle, zuzendari eta gidogile gisan, bere lehen luzemetraia Laponia, India, Mongolia eta Afrika iparaldean grabatutako "Nomadak Tx" izan zen. Donostian zinemaldian saritua izan ondoren, nazioarteko ibilbide luzea izan zuen filmak. Bere bigarren lana ere, Pura Vida/The Ridge, hamar herrialde ezberdinetan errodatua, Donostiako zinemaldian estreinatu eta saritu zuten. Arenak ekoiztiriko azken dokumentalean, Walls-en, zuzendari, gidoilari eta ekoizle lanetan aritu da Pablo. Bere dokumental egile fazetaz gain, Iraburuk museoentzako, hala nola Museo arkeologiko nazionalarentzako, ikusentzunezkoak ekoizten ditu, baita Action Aid, Manos Unidas, Medicus Mundi, Nazio Batuak, Nazioarteko kooperazioaren agentzia espainiarra edo Oxfam bezalako aberasteko asmorik gabeko erakundeentzat ere. Azken honentzat ekoizti du "District Zero" dokumentala. Gainera, dokumental irakaslea da Nafarroako Unibertsitatean.

Migueltxo Molina

2007-tik da argazki zuzendari, editore eta errealizatzaile Arena Comunicación Audiovisualen. Bere lan berrienen artean, Everest oxigenorik gabe igotzeko asmoa duen espedizio baten bizipenak ordu-erdiko hamar ataletan kontatzen dituen "Desafío 14+1" telebista programa dago. Beti ere Pablo Irabururekin elkar lanean, Arenak ekoiztitako ikusentzunezko gehienetan gidoilari, argazki zuzendari edo errealizatzaile lanak egin ditu. Hala, Irabururekin batera, "Pura Vida/The Ridge"-en gidoilaria da eta, "Walls", Arena ekoiztetxearen azken laneko zuzendaria. Egoera zailetan filmatzeko aparteko eskarmentua du, beti ere dokumentalaren generoaren baitan pertsonaiak gidatuz. Bere azken lanak Amazoniako oihanera eraman du, kameran eta errealizatzaile ardurak bizkarrean hartuta.

ARENA COMUNICACIÓN & TXLAP.ART

Txalap.art eta Arena Comunicación Audiovisual gure ekoiztetxeen elkartzea enpresa arlotik askoz haratago doa. Lagunak gara. Egitasmo askotan egin dugu batera lan. Gure lehen dokumentalak, "Nomadak Tx"-ek, baliagarriak diren istorioak kontatzeko pasio bera genuela erakutsi zigun. Urte asko pasa dira ordutik, pasio hazi eta finkatu da Elkarrekin *Pura Vida* ekoitzi ostean, geroz eta osagarriagoak ginela jabetu ginen, bioi gustatzen zitzaizkigula denongan oihartzun orokorrako eragiten dituzten istorio zehatzak. Bide hori urratzen jarraitu nahi dugu, pauso bat haratago joan. *Muros/Walls*-en mezua sekula baino beharrezkoagoa dela sinetsita gaude. Filme honen premia sentitu genuen errailetan eta ezin izan genuen ilusio konpartituz ekoizteko tentazioa ekidin.

Arena Comunicación (www.arenacomunicacion.com)

Zinema eta telebistarako dokumentalak ekoizten dituen enpresa bat da Arena Comunicación. Hamar urte daramatza dokumentalak ekoizten, prozesu osoa beregain hartuz, hastapeneko ideatik masterreraino. Aurrez egindako bere bi dokumentalak, "Nomadak TX" eta "Pura Vida", Donostiako Zinemaldian estreinatu ziren. Dokumentalen generoan arakatzeaz gain, telebistarako serieak, bideo korporatiboak eta museotarako bideoinstalazioak burutzen ditu.

Txalap.art (www.txalapart.com)

Txalap.art ekoiztetxea 2004-ko hondarrean sortu zen, Oreka Tx-eko musikari bikotea ikusentzunezko munduan ate joka hasi zenean. Igor Ochoak eta Harkaitz Martinez de San Vicentek osaturiko txalapartari bikoteak sortu zuen enpresa, "Nomadak Tx" izan zelarik ekoitzi zuten lehenbiziko lana. Gaur egun, multimedia enpresa entzutetsua da Txalap.art, Donostian errotua, eta artisten ordezkarietara, ikuskizunen ekoizpenera, ekitaldien antolakuntzara, diskografiara zein ikusentzunezko ekoizpenetara dedikatzen dena.



ICAA (Espainiako kultura ministerioa), INAAC (nafar gobernua), Eusko Jaurlaritza, Programa MEDIA (Europar Batasuna) eta Etxepare institutuaren (Eusko Jaurlaritza) babesarekin

BROADCASTERS:



eta EITB-rentzat

Beste zenbait datu:

Espainia, Maroko, Mexiko, Hego-Afrika, Zinbaue, Palestina eta Estratu Batuetan errodatur.
Ekoizpena: 2013/14 /Postekoizpena: 2015 Estreinaldia: 2015-eko urria
Iraupena: 80' filmatze formatua: 4K azpituak: Ingelera, gaztelera eta Euskera.
Proiekzio formatua: DCP Proiekzio ratioa: 1.89: 1 hizkuntzak: Ingelera, gaztelera, Arabiera.

FITXA TEKNIKOA

ZUZENDARITZA: PABLO IRABURU ETA MIGUELTXO MOLINA

HASTAPENEO IDEA ETA GIDOIA: PABLO IRABURU

EKOIZLE EXEKUTIBOAK: PABLO IRABURU, IGOR OTXOA ETA HARKAITZ MARTÍNEZ DE SAN VICENTE

EKOIZPEN ZUZENDARIAK: ITZIAR GARCÍA ZUBIRI ETA MARGA GUTIÉRREZ

ARGAZKI ZUZENDARIA: PABLO IRABURU

ZUZENEO SOINUA: MIGUELTXO MOLINA

EKOIZPEN BURUA: ITZIAR GARCÍA ZUBIRI

MUSIKA: MIKEL SALAS

MUNTAIA: MIGUELTXO MOLINA ETA PABLO IRABURU

POSTEKOIZPENEA: NURIA PÉREZ, MIGUEL GARCÍA ETA NATXO LEUZA

SOINU DISEINUA ETA NAHASKETAK: ERNESTO SANTANA MOLINERO

MUSIKAREN KONPOSIZIO ETA INTERPRETAZIOA: MIKEL SALAS

FITXA ARTISTIKOA

Caren Hernández	Mexico	Meza Weza	Hego-Afrika
Ghariba el Bokhari	Maroko	Izak Johannes Meyer Nel	Hego-Afrika
Al Enciso	Estatu Batuak	Iván García Lázaro	Mexiko
Jaime Mimún	Melilla	Bokhar Bricio	Maroko

<p>WALLS / MUROS http://www.wallsmuros.com/ www.facebook.com/wallsmuros</p>	<p>ARENA COMUNICACIÓN & TXALAP.ART kontaktua: contact@wallsmuros.com (+34) 948 315336</p>
---	---

FILMEKO ESALDIAK:

- "Harresi hori da nire oztopoa. Beste aldean, nire seme-alabak daude".* Caren Hernández (Mexiko).
- "Gerrak eta harresiak gauza bera dira".* Meza Weza (Zinbaue).
- "Harresi berri handi eta altu bat eraiki behar litzateke, eta elektrifikatu".* Izak Nel (Hego-Afrika).
- "Munduaren edozein txokotan hesien aurka gaude, baina legeak hala agintzen duenez ezin diegu sartzen utzi".* Jaime (Melilla).
- "Imigrazioa ilegala dela diote batzuek, legezkoa dela besteek. Berdin zait zer uste duten denek. Nik inor ez dela hor kanpoan hilko bermatzea nahi dut".* Al Enciso, (Estatu Batuak).
- "Munduko txoko batekoa edo bestekoa izan, denok konpartitzen ditugu oinarrizko emozioak".* Al Enciso, (Estatu Batuak).
- "Muga zeharkatzen dutenen alde otoitz egin behar dugula dio lagun batek. Jainkoari lagun diezaien erregutu behar diogula dio. Baina jainkoak ez ditu lagunduko. Guk lagundu behar ditugu".* Al Enciso (Estatu Batuak).
- "Beste aldean daudenek badakite gure lana egiten ari garela".* Jaime (Melilla).
- "Limpopo ibaia da hau. Orain zeharkatu beharko duzue".* Meza Weza (Zinbaue).
- "Asko sentitzen dut beraiengatik, baina ez daukate muga zeharkatzeko eskubiderik".* Jaime (Melilla).
- "Hanka egin genuen. Gero, bidaiari batzuk hil zituzten nire aurrean. Ospa baizik ez genuen egin nahi".* Bokhar (Maroko).
- "Muga orok bere hesia behar du. Hesi sendo bat. Eta hesi hori zaintzea armadaren lana da".* Izak Nel (Hego-Afrika).
- "Bidean topatzen duzun objektu bakoitzak dauka bere istorioa. Motxila batek, zapata batek, oihal zati batek... Elementu bakoitzak dauka istorio bat atzean. Ez ditugu istorio horiek ezagutzen, baina alde edo moldez, istorio horiek kontatu behar dira".* Al Enciso (Estatu Batuak).
- "Harresia ikusten dudanero, "utikan!", "kanpora!", "Ez sartu!" bezalako gauzak pentsatzen ditut. Mexikora zoazenean "Ongi Etorri" dioen kartel bat dago. Hemen ezerk ez dizu ongi etorririk ematen".* Al Enciso (Estatu Batuak).
- "Nire seme-alabengatik ez balitz, nire bizitzak ez luke zentzurik. Honezkero, aldegin nengoke, seguraski".* Gariba (Maroko).



PRENTSA KONTUETARAKO:

Laura Olaizola – laura@olaizola.info – (34)607976354
 Julia Sánchez – prensa@olaizola.info – (34)620063353

ARENA COMUNICACIÓN

Itziar García Zubiri
itziar@arenacomunicacion.com – (34)615944845